

Monique Nolett-Ille

AZKEN HIZTUNETARIKOA



SORTERRIRA ITZULITA

“Odanaken sortua, Montrealera joan nintzen 17 urterekin. Han lan egin izan dut, han ezkondu naiz, han hazi ditut umeak eta 35 urte eta gero itzuli naiz Odanakera, aitaren etxera. Montrealen bizi arren, usu ginen Odanaken, amari edota senideei bisitan. Umeek opor guztiak han pasatzen zituzten. Erretretan sarturik, 35 urte eta gero, naturalki itzuli ginen sustraietara senarra eta biok”.

“Biziaren legez adinekoak joan zaizkigu eta haiekin batera hizkuntzaren jakintza”

Hamabost egunero hizkuntza bat desagertzen da. Kanadan 90 hizkuntzaz gora daude eta bi herenak dira desagertzeko zorian, UNESCOren arabera. Datuak ezagutu arren, zifren hoztasunak ez digu ordea hiztun komunitatearen errealitate gordin eta gogorra islatzen. Errealitate horretaz hitz egin digu Monique Nolett-Ille abenakis hiztunak. Transmisioa etenda, hiztunak zendurik, kiskun-kaskun hizkuntza horretan mintzo diren azken bost hiztunetarikoa dugu.

 JENOFA BERHOKOIRIGGIN
 LA FABRIQUE CULTURELLE/TÉLÉ-QUÉBEC

Abenakis naziokoa zara.

Ameriketako Estatu Batuetako ipar-ekialdean dauzka erroak abenakis nazioak. *W8banaki* hitzetik dator, “eguzkiaren sortaldeko lurra” erran nahi duena. Ingelesen zapalkuntzari ihes egiteko migratu zuten arbasoek Quebecerantz, XVII. mende bukaeran. Gaur egun bi herri ditugu, Odanak nire sorterrria eta W8linak.

Kinka larrian duzue hizkuntza.

Gaur egun arras pertsona gutxi hitz egin dezake abenakis hizkuntza, transmisioa ez delako egin. 70.eko hamarkada arte hainbat adineko pertsonen mintzo zuten eta belarriak luzatuz gero hizkuntza honen goxotasuna eta musika gozatzeko aukera genuen. Baina biziaren legez, urtez urte pertsona horiek joan zaizkigu eta haiekin batera abenakis hizkuntzaren jakintza.

Abenakisez gerorik ez zutela errepikatu zitzairen arbasoei.

Ingurune eta bizimolde berriak ikusirik, guraso eta aitatxi-amatxien

belaunaldiei garrantzizkoagoa zitzaien gazteok frantsesa eta ingelesa ikastea. Behin eta berriz erran izan zitzairen lana aurkitzeko eta bizia arrera ateratzeko baldintza frantsesa edota ingelesa jakitea zela. Gure arbasoak ez dira errudunak, behartuak izan ziren, errealitate berrira egokitu behar ukan zuten. Haien hizkuntzaren ukazioa baino gehiago, ondorengo biziraupena segurtatzeko esperantzarekin egindako hautu gisa ikusten dut transmisio eza.

Kolonialismoa.

Konkistaturiko lurralde guztien gisara, bizirauteko esperantzarekin, Kanadako oinarrizko biztanleok inbaditzaileen parean oinperatu behar izan dugu. Belaunaldiz belaunaldi iraun du kolonialismoak eta belaunaldiz belaunaldi egin da bizimolde berriarekiko egokitzapena. Lehengotar izan gabe, gure arbasoen ondareak eta hizkuntza bizirik atxikitzearen alde lan egin behar dugu. Hizkuntza dugu ondarearen elementu premiatsua.



ABENAKIS HIZKUNTZA DESAGERPENETIK SALBATU NAHIAN, IKASTEN ETA IRAKASTEN ARI DIREN AZKEN BOST HIZTUNAK.

Hiztunak bost omen zaudete, bakarrik.

Bost pertsonok hizkuntza maila hobetzeko eta hizkuntzaz ditugun jakintzak partekatzeko interes handia daukagu. Hori erranik, segur da han ala hemen beste batzuk ere badaudela nozio batzuekin. Ikasle jarraiki andana ere badugu kurtsoetan. Abenakis hizkuntzari buruzko interesaren berpizte batean gaudela erran nezake.

Elkarrizketak bideratzeko heina ba ote da?

Hein hori nahi genuke eta horren alde gabiltza lanean, kurtsoak eskainiz, hiztegiak osatuz, dvd bidezko kurtsoak sortuz, eta abar. Hitz batzuk ulertzeko eta adierazteko pertsona batzuk egongo diren hizkuntza hau ez da osoki ahanzturan desagertuko. Ez dugu gehiago hizkuntza bizi bat, baina ezta ere ahanzturan osoki desagerturikoa.

Eskerrak Cecile Wawanoloath hor zenutela.

Odanaken sortua, bere heldu bizi guztia senarrarekin batera AEBetan emanda-

koa zen. Erretretan sarturik herrira itzuli ziren. Hizkuntza etxean ikasi zuen, gazte-gazterik. Erabat ongi oroitzen zuen eta hitz egin ahal izateaz gain idazten ahal zuen, hots, irakasten ahal zuen.

Irakaslearen lekukoa pasa zizun.

1990eko maiatzean, erretretan sarturik, senarrarekin Odanakera itzuli nintzenez, abenakis kurtsoak ematen hasi zen Cecile. Oroitzapenen bidez soilik gogoratzen nuen hizkuntzaz passionatua nintzela, zazpi urtez segitu nintuen kurtsoak. Bere umetaz hurbilago izateko AEBetara itzuli zenez, irakasle gisa jarraitzeko eskatu zidan. Plazerez onartu nuen eskaera.

Zer da zuretzat hizkuntza?

Bizitzeko eta pentsatzeko molde baten adierazpena da hizkuntza. Jatorrizko hizkuntza ikastea norbere burua hobeto ezagutzeko bidea dugu.

Eguneroko borroka duzu hizkuntza honen irakaspena.

Abenakis hizkuntzaren biziraupenaren aldeko nire inplikazioa ez dut borroka

konsideratzen. Hizkuntza honen aberastasuna eta sotiltasunak deskubriturik, ahal dudan neurrian nabil partekatzen. Hizkuntza hau hobeto ezagutzeko nahikeria loratu nahi dut ingurukoetan, batez ere abenakisen artean.

Noizbait hizkuntza bizia izango denaren esperantza ote duzu?

Ez dut uste abenakis berriz bilakatuko denik Odanakeko hizkuntza. Orain inporta zaidana da bere existentziaz jakinean izatea, daukan aberastasunaz kontziente izatea. Oso ongi egituraturiko hizkuntza dugu, arau gramatikal sendo batzuk dauzkana. Ez dut nahi altxor hori ahanzturan desagertzea.

Zein emozio eragiten dizu horrek? Haserrea? Tristezia?

Ez da ez tristezia ezta haserrea. Egunerokoan barra-barra mintzo zen garaia ez dut ezagutu eta ni ere 50 urte pasa hasi nintzen ikasten. Ez da ez tristezia, ezta haserrea... nostalgia agian. Izandakoaren eta desagertuz doanaren nostalgia sendi dut nire barrerean. ●